

Oargui'ren irugarren batzaldia

Irugarrenez bildurik gaituzu Oarguitar gazte arikorraikin ain egoki antolatzen dakiten jaialdi atsegingarri batean.

«Egia da latz eta garratz», diño euskal-esakun zahar batek. Eta zergatik uka? Azkeneko batzaldiak eztu eman eragilleak itxaro zuten zituaren laurdenik ere, Besterik esatea geronen buruak engañatzea iltzake eta euskaldunok naiago dugu egi latza bidelagun ibilli gezur zurikagarririk albotik euki baiño. Orra ba. Aurrekotan ogeitamar lanetik gora aurkeztu zituzten eta oraingoan sei doi-doi.

Utsegiteak sortzen diranean, auen erro edo sustraiak nondikako diran aztertu bear lenengo eta guri onoko auek iruditu zaizkigu zitu urriaren erroak: 1.º, azterpen edo examin garaia bete-betean egokitu dela eta gure estudiante eta praillegaiak ba-zuten beste zertan burua autsi Oargui'ko sariketarik gabe. 2.ºgn., gure ustez, Oarguitar saiatuak, euren euskal-garrak eraginda maiztxoegi erutzen dituzte batzaldiok eta idazleak ain epe laburretan jardunaz nekatu edo egiten diran, dugu pekoa.

Sei idazlanok lenen maillekoak izan dira, euskal-ikasleak kale egin baidigute bete-betean.

Lenen saria Etxebeste'tar Iñaki'k jaso du «Evoluziño ta Genesis» deritzan philosophi saio politagatik. Aita Onaindia'ren «Milla euskal-olerki eder» eman zitzaion sarigarri. Bigarren saria Zelaia'tar S'ri «Ederti arloan» deritzan lanagatik. Kritika-saio ernegarri au irutan dauka zariturik Arantzazu'ko praille gazteak: Ederti ta zinema, Ederraren metaphisika, Ederti ta zilleizti (moral). Sarigarri A. Mitxelena'ren «Ama-emeak» eman zitzaion. Aipamena, Aresti'tar Gabirel'i *Pigmalion euskaraz* deritzan idazlan sakon eta aoxurigarriagatik. Benetan arrigarria, tutik ere euskeraz etzekien Bilbotar gazte onek egunez-egun

dagien aurrerapena jakintza-gaiak euskeraz borobildurik. Zorionak biotz-biotzez iru euskal-idazleoi eta jarraitu asitako bidean barrena.

Urrengo sariketa epea Santu-Guzi-Eguneraño jarri dute Oarguitar zuzendariak. Ona gaiak: Lenengo maillan, «Europa'ren etorkizun politikoaz kritika lan bat» eta «Aldizkari-kronika» (crónica periodística) bat. Lenengoa goituxamarra ba'da, ta talde bereizi batentzat mugaturikoa, bigarrenkoa xalo ta arrunta da, edonork idatzi dezakena. Bigarren maillan, gaia aukeran. Olerkirik ezta aintzakotzat artuko eta idazlanen neurria beti bezelatsu, lau-bots kuartilla makinaz.

Ots! euskal-idazleok, zorroztu zuen lumak Santu-Guzti egunerako!

E'TAR. Y.

